

# Atxitarteko egokitzapena aztertzeke Ituneko nafar alderdien bilera gaur

PSN-PSOEek ez du Allik deitutako bilera horretara joateko asmorik


**N**afarroako Ituneko alderdiak biltzeko deia egin zuen joan den asteartean Juan Cruz Alli Nafarroako gobernuburuak, Irurtzun-Andoain autobidean Nafarroako zatian egin daitezkeen «egokitzapen teknikoak», batez ere Atxitarteko, aztertzeke. PSN-PSOE bileraren kontrakoa da eta seguruenik ez da azalduko.

IRUÑEA

UPNko batzorde exekutiboa, joan den ostiraleko bileran, Nafarroako Gobernuak Irurtzun-Andoain autobidean «egokitzapen teknikoak» alde agertu zen, «baldin eta bloke demokratikoko alderdi guztiak ados dauden».

Ostiraleko bileren ostean, astelehen eguerdian, Jesus Aizpuz UPNko presidentea Gabriel Urralburu PSN-PSOEko idazkari nagusiarekin bildu zen Javier Otano Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren bulegoan. Bertan, Rafael Gurrea UPNko idazkaria ere izan zen. Bilera horretan, Aizpuz autobidean sei puntutan zenbait aldaketa egitea proposatu zion Urralbururi. Aldaketa horiek, antza, Latasa, Lekunberri, Azpirotz, Areso, Gorriti eta Atxitartean dira egitekoak.

Atxitartekoa izan ezik, Urralburu beste guztiak onartzeko prest azaldu zen, Lurraldearen proposamenekiko «adostasuna»



UPNko batzorde exekutiboa.

EFE

ekiditen baldin bazen. Atxitarten aldaketarik ez zuela onartuko esan zuen PSN-PSOEko idazkari nagusiak, zati hori HB eta Lurraldearentzat «sinbolo politikoa» dela argudiatu. Era berean, «bloke demokratikoa» deritzana berriro biltzearen kontrakoa zela adierazi zuen Urralburuk.

**ALLIREN DEIALDIA OSTIRALERAKO** Informazio hau eskuartean joan zen Jesus Aizpuz UPNk astelehenero egiten duen exekutibaren bilerara. Bertan, Juan Cruz Alli alderdien bilera deitzea defendatu zuen, PSN-PSOE egitearen kontrakoa jakinda ere. Bere tesia garaile atera zen, asteartean bertan ostiralean biltzeko deia egin bait zion PSN-PSOE, EA, IU eta

UPNri. Astearte arratsaldeko azken orduan, PSN-PSOEek seguruenik ez zela joango jakin erazi zuen.

PSN ez badoa, bilera honekin, Allik ez du lortuko UPNk beharrezko deritzon bateratasuna aldatetarik egin ahal izateko, baina Urralbururen alderdiaren itxikeria agerian uzten saiatuko litzateke.

Atxitarteko hobekuntza aurrera ateratzeko aipatzen den posibilidadea honako hau da: Legebiltzarrean IUK aurkeztea. Bide horretatik, edozein ekimen egiteko alderdi guztien adostasuna ezinbesteko baldintza izateko PPrekin hitzartu zuen konpromezua salbatuko luke UPNk. Baina, pausu hori emateko IUK UPN «argitzea» eta «arrera garbia izatea» nahiko luke.

## Polizien soldatak Ertzaintzakoekin parekatuko dituzte

MADRIL

Polizia Nazionaleko kideen soldatak Ertzaintza eta Kataluniako Mossos d'Esquadra koekin jositzen dituztenekin parekatzeak akordioa izenpetu zuen atzo Corcuera Barne ministroak polizi sindikatuetako buruzagiekin.

Azken urteotan Polizia Nazionalek egin duen eskaera nagusietako bat da hau. Polizia Autonomiko eta udal polizien soldatak beraienak baino handiagoak direla salatzen zuten.

Corcuera eta ANPU, SPP, SCP et SPPU sindikatuek izenpetutako agiriak esaten duenez, «Barne Sailak beharrezko bideak erabiliko ditu 1992, 1993 eta 1994. urteetan Polizia Nazionaleko funtzionarien soldatak beren lana eta lurraldearen konplexutasunera egokitzeko». Soldatak «administrazio autonomiko eta lokalaren pean dauden kategorian antzekoa duten funtzionariarekin» parekatuko dela esaten du baita ere akordioak.

## Vegak Iraultzari leporatu dio Lan Ordezkaritzako atentatua

BILBO

Greba orokorraren bezperan lehegailu batek eztanda egin zuen Bizkaiko Lan Ordezkaritzak Bilboko Gran Vian duen bulegoan eta kalte handiak eragin zituen. Bizkaiko gobernadore zibila Iraultza talde armatuari leporatu zion horren ardura. Poliziako iturriek adierazi zuten, bost kilo amosalek egin zuten eztanda inor zauritu gabe. Artezilariek beste kilo erdiko lehegailu bat indargabetu zuten.

Garbiketako emakume batek pakete susmagarria ikusi eta abisua eman zien etxea zaintzen zuten Polizia Nazionalean bi furgonetei. Leherketa gertatu baino zenbait minutu lehenago ezezagun batek telefonoz deitu zuen bonba jarrita zegoela iragartzeko. Bulego horretan bostehun

langilek beharrezko ihardun eta leherkariak osoki hustu gabe eztanda egin arren, ez zen inor kalteturik gertatu.

Daniel Vegak adierazi zuen leherketa «ez da greba hasteko modurik egokiena», eta horrelakoek ez diotela «mesederik egiten ez lanera doazenei ez lanuztea egingo dutenei».

**BUTANO BONBONAZ IRUNEAN** Iruñeko Monasterio de Valdoluengo

kalean INEMek due bulegoan ere beste lehegailu txiki batek egin zuen eztanda. Alejandro Lara, erakunde horretako Nafarroako zuzendariak jakin erazi zuen kalteak nahiko handiak direla leiho, sabai eta altzarrietan.

Goizaldeko ordu biak hamar gutxitan leheritutako bonbak butano bonbona batez zegoen osatuta.

Maastrichteko ondorioak aztergai


## Garaikoetxea: «Europatik ez da autodeterminazioa etorriko»

P. A. / DONOSTIA

«Autodeterminazioaren arazoa hemen eta orain konpondu behar dugu, Europatik etorriko dela esatea faltsua da, Europak ez digulako ezer onartuko» adierazi zuen Carlos Garaikoetxeak astelehenean Donostian eman zuen hitzaldian. Euskal Herriak Estatu espainiarrarekin duen gatazka konpondu behar duela esan zuen eta kritikatu egin zuen EAJk Europari buruz zabalduko mezua. «Europako estatuak desagertzera doazela eta orain autodeterminazioa defendatzeak ez duela zentzurik diote sektore nazionalista batzuek, baina hori hemen dugun konpromezutik aldentzeko modua besterik ez da» adierazi zuen.

Eusko Pizkundek 'Maastricht eta etorkizuneko Europaz Euskal Herriari ekarriko dizkion ondorioak' izenburuarekin antolatu duen zikloko lehen hitzaldia eman zuen Garaikoetxeak. Maastrichtek estatuen esku utzi duela protagonismo osoa esan zuen eta naziotasuna eta elkarte autonomo kontzeptuak ez direla kontutan hartzen. «Erregioena Maastrichten Erregioen Batzorde modura jarri duten lorontzi bat baino ez da».

Garaikoetxearen esanetan, Maastrichtek ez du erregioekiko sentsibilitaterik erakutsi, eta ez du sikierra au-



Garaikoetxea. VILLAGRAN

togobernu nahiak erantzun: «Defendatzeko modurik gabe uzten gaituzte, guk geneuzkan kompetentziak berreskuratzen dituzte estatuak, Europako Komunitateko instituzioetan bera delako bitartekari bakarra». Erregio Batzordeko ordezkariak Estatuak berak hautatzen dituela gogoratu zuen, eta EAJk horren alde bozkatu zuela. «Talde kontserbadoreek status quo-a gordetzearen alde agertzen dira, eta talde aurrerakoiak soilik dira nazio eskubideak defendatzen dituztena» esan zuen.

Bestalde, Europar Kontseilua 'hirugarren ganbaran' bihurtzearen alde agertu zen, «erregio, nazionalitate eta elkarte autonomo berezko hitza izateko aukera emango diona nolabaiteko ordena federatari berruan».

Etorkizunari begira

## Europar herriek ahotsik gabe dirautela esan du Zabaletak

BILBO

Europako herri eta eskualdeak hitz eta ordezkaritza barik dirautela adierazi zuen Patxi Zabaletak Sabino Arana Fundazioan eskainitako hitzaldian. Herriek gauza eta gune sinboliko eta testimonialetan besterik tokia ez izatea arbuatu ondoren, buruzagi abertzaleak gaineratu zuen Europako Komunitatea estatuen egitura besterik ez den bitartean ez dela «benetan demokratikoa» izango. Nafarrarentzat Europaren eraikuntzak norberaren askatasunean, elkartasunean eta autodeterminazioan oinarritu behar du.

EK-k garapen ekonomikoan ahalmen batzuk eskuratu dituela onartu ondoren, EKren barne egitura kritikatu zuen. «Europako Legebiltzarrak ez du Komunitateko Kontseilua izendatu, ezta kontrolatzen, Estatuak izendatzen bait dituzte propos-

tzionaltasun jakin baten arabera horko partaideak».

Ekialdeko aldatetarik eta Golkoko gudak ekarritako munduaren antolaketaren berriaz luzean solastu ondoren, parlamentariak EKren politika ekonomikoa aztertu zuen. ECUk, indartu eta nazioarteko merkatalgintzarako moneta bilakatzen den neurrian, «zioen HBkoak- «dolarra alboratu eta Estatu Batuen monetarismoa desorekatuko du». Monetaren kontrola estatuen gaitasunetik at geratzen denean -ondorioztatutako- «administrazio eta politika monetaristak, Soltxagaren politika zaharkitu eta eragin murriztekoak esaterako, krisiak jota geratuko dira».

Patxi Zabaleta Nafarrak bukatu zuen hitzaldia esanez «herriek bizirik irauteko borrokaren testuinguruan ezkerreko ideia abertzaleen defentsa sekula baina beharrezko eta aldi berean zailagoa» dela.